

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKEINI ETA IHARDUERAK
BURUTZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

INDARREAN 2008KO URTARRILAREN 1ETIK

(2007KO AZAROAREN 14KO UDALBATZARREAN ONARTUA)

(G.A.O. 253 ZKIA-2007.12.31)

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta iharduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. Artikulua.

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. Artikulua.

Administrazio Lokalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo iharduera bat burutzeak eratzten du zerga-gaia, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. Artikulua.

- 1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo iharduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.
- 2.- Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:
 - a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo iharduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.
 - b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraipen zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenimendua barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.
 - c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan: obren eraikitzaileak edo kontratistak.

5. Artikulua.

Tasak ordaintzera behartuta daude:

- a) Partikularren eskariz egindako zerbitzu edo ihardueren kasuan, eskaera egin dutenak.
- b) Partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo ihardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

6. Artikulua.

Ordenantza honetatik eratorzen diren zerga zorretan, subjeto pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

7. Artikulua.

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. OINARRI EZARGARRIA

8. Artikulua.

Oinarri ezargarría zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak erutzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. KUOTA

9. Artikulua.

Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. Artikulua.

Zerbitzua edo iharduera egiten denean sortzen da tasa.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. Artikulua.

Administrazio Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. Artikulua.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, bertan adierazten den egunean onartu zen behin betikoz. 2008 urteko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

ERANSKINA

Batzarraldiaren data: 2007ko azaroak 14

TARIFAK

A. INTERESATUAK HORRELA ESKATURIK, UDAL ADMINISTRAZIOAK EDO UDAL AGINTARIEK EMAN EDO AZTERTUKO DITUZTEN DOKUMENTUENGATIKO TASA.

- a) Hirigintzari buruzko aldez aurreko kontsulta 114,53 €
- b) Fotokopiak, alde bakoitzeko
 - 1.- Alde bakoitzeko0,12 €
 - 2.- Bi aldeetatik0,23 €
 - 3.- A4 baino handiagoak0,23 €
- c) Faxaren erabilpena:
 - 1.- Estatu mailan:
 - 1. Orria3,32 €
 - Hurrengoak1,18 €
 - 2. Estatutik kanpo:
 - Orriko2,25 €

B. AUTO-TAXI ETA GAINERAKO AKURAKO IBILGAILUEN LIZENTZIA EDO BAIMEN ADMINISTRATIBOA EMATEAGATIKO TASA.

- a) Auto-taxien lehen lizentziak 343,20 €
- b) Auto-turismoen 1.lizentziak 343,20 €
- c) Dagoeneko emandako lizentzia batek babesturiko ibilg. ordeza 324,19 €

TARIFA APLIKATZEKO ARAUAK

- 1.- Hirigunearen barruan kontadore taximetroaren bidez neurtutako zerbitzuak eskaini ohi dituen gidaridun akurako ibilgailu arina hartuko da Auto-Taxitzat.
- 2.- Auto-Turismoak izango dira kontadore taximetroa ez duten eta hirigunearen barruan nahiz kanpoan zerbitzuak eskaintzen dituzten gidaridun akurako ibilgailu arinak.

C. HIRIGINTZ LIZENTZIAK EMATEAGATIKO TASA

Nekazal eta/edo abel ustiapenera destinatzen ez diren obretarako lizentziak, aurrekontuaren arabera:

- a) 300 euro arte: 16,58 euro

- b) 300,01 eta 601 euro bitarteko aurrekontua dutenak : 33,15 euro
- c) 601,01 eta 3.000 euro. bitarteko aurrekontua dutenak : 46,62 euro
- d) 3.000,01 euro eta 6.000 euro bitarteko aurrekontua dutenak:..... 62,16 euro
- e) 6.000,01 euro eta 30.000 euro bitarteko aurrekontua dutenak : 227,92 euro
- f) 30.000,01 euro eta 90.000 euro bitarteko aurrekontua dutenak : 456,88 euro
- g) 90.000,01 euro eta 300.000 euro bitarteko aurrekontua dutenak : 715,88 euro
- h) 300.000 eurotik gorako aurrekontua aurrekontua dutenak..... 2.287,49 euro
- i) Lehen erabileraren lizentzia:
 - Etxebizitza bakoitzeko : 72,71 euro
 - Merkatal lokal bakoitzeko : 125,09 euro
 - Industri bakoitzeko: 534,58euro
- j) Lur-zatiketa eta birzatiketa, m2. : 0,29 euro/ m2
- k) Lerrokadurak fatxadaren m. lineal bakoitzeko: 5,13 euro
- l) Goian adierazitako edozein lizentziaren luzapen eta transmisioek, kuota likidoaren zenbatekoaren ehuneko hainbat : %30
- m) Ekimen pribatuaren bidez sustatutako Udalaren iharduera: Birpartzelazio Proiektuak, Xehekapen Azterlanak, Plan Partzialak, Barne-Erreformatarako Plan Bereziak, Urbanizazio proiektuak, eta, oro har, beste zenbait planeamendu figura izapidatzeagatik: 1.715,99 euro

TARIFA APLIKATZEKO ARAUAK

- 1.- Lizentzia eskuratzeko interesa duten pertsonak Udaletxean aurkeztu beharko dute dagokion eskaria ondoko datu hauekin: burutu nahi den obra edo eraikuntzaren izaera, zabalera eta mugak, kokalekua, obraren kostu errealararen aurrekontu zehatza, lanak bere kargu dituen edo gai den fakultatiboak sinatua, eta oro har, exakzioa zehazki aplikatzeko beharrezko argibide guztiak eskainiko ditu aipatu eskariak.
- 2.- Eskaria interesatuek nahiz lanetako kontratistek aurkeztu ahal izango dute, baina beti ere eraikineko jabearen izena eta helbidea (eta maizterrarena ere bai obrak beronen kontura eta intereserako burutzen direnean) adierazi beharko dira, hala nola jabearen baieztapen nahiz baimen espresoa ere.
- 3.- Eraikuntza berriko obrak, dauden eraikinetako erreforma sakoneko eta oro har Udal honetako Eraikuntza arau aplikagarriek ezartzen dituzten lanetarako eskariek, lanen burutzaileak eta horien teknikari zuzendariak sinaturik egon beharko dute, eta horrez gain obra eta instalazioetako zuzendaria partaide den Kolegio Ofizialak ikus-onetsitako plano, proiektu, memoria eta aurrekontua gehituko dira, hiru aletan.
- 4.- Eraikuntza berriko lizentziatarako eskarietan orubea guztiz libre eta eraikuntza galeraziko duen eraikinik gabe dagoela konstarazi beharko da, zeren bestela eraikinak botatzeko lizentzia aldeztatik edo aldi berean eskatu beharko bait da.
- 5.- Era berean, eraikuntza berriko obretarako lizentziaren aurretik lerrokadurak eta sestrak demarkatzeko lizentzia eskatu beharko da Egitasmo Orokorren hirigintz arauak zehazten duten moduan.
- 6.- Lizentzi eskaria egin ondoren proiektua aldatu edo hedatuko balitz, Udal-Administrazioari jakin erazi beharko zaio, aurrekontu berria edo birmoldatuarekin batera, eta behar balitz, birmoldaketa edo hedapenaren

aldaketa edo zabalketaren plano eta memoriak ere bai.

- 7.- Obren burutzapena Udalaren zaintza, fiskalizazio eta berrikuspenari menpekotarik geratzen da eta haren teknikari eta agenteen bitartez burutuko da hori.
- 8.- Arau hauek aurrikusirik ez dagoen guztietan, Obra txikien lizentzia eta jakinaren gainean jartzeko obren Ordenantzak xedatutakoari egongo zaio, Ordenantza hori izango delarik nagusi kontraesan edo interpretazioak konpontzeko.

D. JARDUERA ETA ESTABLEZIMENDUEN IREKITZE-LIZENTZIA EMATEAGATIKO TASA.

- a) Sailkatutako Ihardueraz izapidatuta daukaten dendak457,60 euro
- b) Sailkatutako Ihardueraz izapidatuta ez daukaten dendak343,20 euro
- c) Sailkatutako Ihardueraz izapidatuta daukaten zerbitzuak572 euro
- d) Sailkatutako Ihardueraz izapidatuta ez daukaten zerbitzuak400,93 euro
- e) Sailkatutako Ihardueraz izapidatuta daukaten industriak686,39 euro
- f) Sailkatutako Ihardueraz izapidatuta ez daukaten industriak572,00 euro
- g) Lokalen esku aldaketa edo titularitate aldaketa, baldin ihard. berarekin jarraitzen badute eta lizentzia indarrean dagoen Legeriaren arabera badute228,80euro

TARIFA APLIKATZEKO ARAUAK

1.- Negozio-lokalaren irekieratzat hartuko da:

- a) Lehenengo establezimenduak.
- b) Lokalen lekualdaketak.
- c) Lokaletan eramandako iharduera aldaketak edo zabalketak, nahiz eta titular berberak jarraitu.

2.- Negozio lokalentzat honako hauek hartuko dira:

- a) Ohizko merkataritza iharduerarako edozein establezimendu, Maiztasun hori suposatuztat emango da Merkatal Kodeko 3. artikuluan aipatutako kasuetan, edota eramandako ihardueraren trafiko-gai diren ekintzak edo kontratuak egiteko Industria Zerga ordaintzea beharrezkoa denean.
- b) Establezimendu irekiaren bidez industria, merkatal edo irakaskuntza ihardueran aritzen dena.
- c) Edozein etxebizitza, bere xedea bizitza ez denean, eta bereziki, jendeari zabalik egon edo ez egonik, honako hauek direnean:
 - Partaide edo bazkideen solas edo olgetarako kasinoak edo elkarteak.
 - Pasarte honetako aurreko zenbakian aipatutako lokalen esparruan, kasino edo zirkularrak ez beste pertsona batzuk, errentamendu, lagapen edo bestelako tituluren bidez merkatal edo industria ustiapenarako erabiltzen dituzten dependentziak.
 - Edozein mota edo izaeratako industria edo negozioan ihardutea.
 - Ekonomia ihardueratan aritzea.
 - Ikuskizun publikoak.

- Depositoak eta biltegiak.
- Idazgela, bulego, bulego edo estudioak, bertan merkatal edo industria iharduerak eramaten direnean.
- Luxu asmoarekin arte, lanbide edo irakaskuntza ihardueran aritzen den eta jendeari zabalik dagoen idazgela, bulego, bulego edo estudioa.

3.- Lokala eskuz aldatzean indarreango xedapenen araberako irekitze lizentzia ez duten lokalen kasuan lizentzia berria eskatu eta dagokion tasa ordainduko da.

E. UDAL HILERRIAN ZERBITZUAK ETA EMAKIDAK ESKAINTZEAGATIKO TASA.

a) Ehorzketak	269 euro
- Ehorzketak larunbata eta jai egunetan:	292,50 euro
b) Desehorzketak	269 euro
- Desehorzketak larunbata eta jai egunetan:	292,50 euro
c) Nitxoen emakidagatik:	
- 10 urteko epean	214 euro
d) Haurren nitxoen emakida:	
- 10 urteko epean.....	93,24 euro
e) Hauts kutxatilen "hautsontzi" emakida:	
- 10 urteko epean.....	114,99 euro
f) Nitxoen emakida luzatzeagatik:	
- 10 urteko epean.....	303,54 euro
g) Haurren nitxoen emakida luzatzeagatik	
- 10 urteko epean.....	124,32 euro
h) Hauts kutxatilen "hautsontzi" emakida luzatzeagatik	
- 10 urteko epean.....	169,90 euro

TARIFA APLIKATZEKO ARAUAK

- 1.- Hilerriko arduradunak zerbitzuaren prestazioa baimentzen duen Alkatetzaren Dekretua eskatuko die hileta-enpresei edo hildakoen senitartekoei, hura burutzen hasi aurretik.
- 2.- Hileta-enpresek edo hildakoen senitartekoei, eskatzen dituzten zerbitzuei dagozkien eskubideak ordaindu beharko dituzte, aipatu zerbitzuaren likidazio jakinerazpenean adierazitako epearen barruan.

H. ZABORBILKETA

- a) Egoiliarrek helbidetzat dauzkaten etxebizitzak:
- Seihilabetea..... 40,53 euro
- b) Lokal komertzialak eta zerbitzuak:
- Seihilabetea..... 91,04 euro
- c) Taberna, jatetxe, jolas-elkarte, janaridenda, arrandegi eta antzekoak:
- Seihilabetea..... 112,47 euro
- d) Industriak:
- Seihilabetea..... 139,25 euro

TARIFA APLIKATZEKO ARAUAK

- 1.- Zerbitzua eskaintzen den alderdi edo kaleetan dauden etxebizitza nahiz merkatal edo industri lokal berezi guztiak hartuko dira exakzio honen oinarritzat.
- 2.- Tasa hiruhilabetero ordainduko da.
- 3.- Zaborbilketa zerbitzuagatiko tasak, P.G.S.ren arabera, murrizketa izango du ondorengo taula hau jarraituz:

ETXEAN BIZI DIREN PERTSONAK	%90	%75	%50
1 PERTSONA	S.M.I.	S.M.I.+ %10	S.M.I. + %20
2	S.M.I. + %10	S.M.I. + %20	S.M.I. + %30
3	S.M.I. + %20	S.M.I. + %30	S.M.I. + %40
4	S.M.I. + %30	S.M.I. + %40	S.M.I. + %50
5	S.M.I. + %40	S.M.I. + %50	S.M.I. + %60
6	S.M.I. + %50	S.M.I. + %60	S.M.I. + %70

a) Hirugarren atal honetan adierazitako murrizpena lortzeko, interesatuak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

. Murrizpenaren eskaera, egungo egoera ekonomikoak aldaketarik izanez gero, hurrengo urteko PFEZren Aitorpenaren kopia aurkeztuko duela hitz emanez.

. Aurreko urteko PFEZren Aitorpenaren kopia edo aurkeztu ez izanaren agiria.

b) Hala ere, egoera aldaketetan momentuko agiriak aurkezteko aukera izango da.

c) Titular-jabeekin bizi diren seme-alaben eta gurasoen dirusarrerak (aiton-amonak) %75ean kontabilizatuko dira.

d) Murrizketak gutzira ezin izango du %90a gaintitu eta ondorioz, eskatzaile guztiek gutxienez %10 ordaindu beharko dute.

I. UDAL FRONTOIKO ARGIZTAPEN ELEKTRIKOAREN ERABILPENA.

a) Ordu edo frakzioko.....4,54 €

Puntualki eta kasuz-kasu aztertuta, udaletxeak frontoiko aldagelen erabilera onar dezake kirol aktibitatek burutuko ez duten pertsona edo taldeen aldetik, beti ere udaletxeak egokitzat jotzen duen tasa aplikatuz

TARIFA APLIKATZEKO ARAUAK

- 1.- Erabilpen-erreserba eskatzeko interesik duen guztiek Anoetan erroldaturik egon behar dute
- 2.- Erabilpena arrazoi sozial edo kulturalengatik egiten bada, ez da tasarik aplikatuko.
- 3.- Tarifa %50ean gutxituko da Gazte txartelaren jabe direnei, egunean ordu beteko muga jarritz.

J. BIDE PUBLIKOAN GARABIA ZERBITZUAREN ERABILPENA.

a) Ibilg. erretiratzeagatik, eguneko ordutegian:.....57,26 €uro

b) Ibilg. erretiratzeagatik, gaueko ordutegian:80,39 €uro

TARIFA HAU APLIKATZEKO ARAUAK

Udal Jabari Publikoa okupatzeagatik tarifa dagokien zigorrarekin areagotuko dira, eginiko arau urratzearen arabera.

K. KULTUR ETA GIZARTE MAILAKO JARDUERAK

1. PÌLOTA

- Astero ordu edo frakzioa 48,46 Euro
- Astero ordu eta erdi edo frakzioa 70,11 Euro
- Astero 2 ordu edo frakzioa.....85,57 Euro

2. ASTE SANTU EDO EGUBERRITAKO LUDOTEKA:

- Aste Santuko ludoteka..... 3,0 Euro
- Eguberritako ludoteka.....,5,0 Euro

3. UDALEKU IREKIAK UZTAILEAN

- 2 aste..... 35,00 Euro
- Hil osoa.....60,00 Euro.

4. IKASTAROAK.

- XAKEA (Hiruhilabetea) 15,00 Euro.
- MARRAZKETA (Hiruhilabetea) 30,00 Euro.
- PLASTIKA (Hiruhilabetea) 30,00 Euro.
- ANTZERKIA (Hiruhilabetea)30,00 Euro.

5. GAINONTZEKO KULTUR ETA GIZARTE JARDUERAK

Gainontzeko kultur eta gizarte mailako ihardueretako partaideen kuotak eta izen emate epeak dagokion batzordeak finkatuko ditu bere momentuan. Beste udalekin batera antolatzen diren ihardueretan udalen artean zehaztutako irizpideak aplikatuko dira.

TARIFA HAU APLIKATZEKO ARAUAK:

- 1.- Matrikula egin ahal izateko, aurreko ikastaroen kuoten ordainketak eguneraturik egon behar dute.
- 2.- Matrikulazio epea: Aurreko ikastaroetan matrikulatutako ikasleak nahiz ikasle berriak dagokion batzordeak erabakitako epean matrikulatu ahal izango dira eta Pilota eta Dantza ihardueretarako berriz, ekaina bukaeran, uztailean edo irailean matrikulatu ahal izango dira.
- 3.- Matrikulazioa dela eta aurreko epigrafetan ez bada zer edo zer jaso eta dudarik sortu ezkerro, Kultura Batzordeak erabakiko du dagokiona.
- 4.- MURRIZKETAK iharduera guztietan eta anoetan erroldaturik daudenei soilik aplikatuko zaie. Murrizpenak hauek dira:

4.1 Umeentzako Ikastaroetan (16 urte arte)

a) "Gazte Txartela"ren jabe direnek %10eko beherapena izango dute, beti ere matrikula egiterakoan aurkezten badute, eta ezin izango da murrizketa gerora eskatu.

b) Famili Ugariaren kartilaren jabe direnen familiako kideek %25eko murrizketa izango dute matrikulazioan.

c) Epigrafe honetan agertzen diren tarifak murrizketa bat izango dute, P.G.S.ren arabera, ondorengo taula jarraituz:

ETXEAN BIZI DIREN PERTSONAK	% 30	% 20	% 10
1 PERTSONA	S.M.I.	S.M.I.+ %10	S.M.I. + %20
2	S.M.I. + %10	S.M.I. + %20	S.M.I. + %30
3	S.M.I. + %20	S.M.I. + %30	S.M.I. + %40
4	S.M.I. + %30	S.M.I. + %40	S.M.I. + 50%
5	S.M.I. + %40	S.M.I. + %50	S.M.I. + %60
6	S.M.I. + %50	S.M.I. + %60	S.M.I. + %70

c.1) Atal honetan adierazitako murrizpena lortzeko, interesatuak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Murrizpenaren eskaera, egungo egoera ekonomikoak aldaketarik izanez gero, hurrengo urteko PFEZren Aitorpenaren kopia aurkeztuko duela hitz emanez.

- Aurreko urteko PFEZren Aitorpenaren kopia edo aurkeztu ez izanaren agiria.

c.2) Hala ere, egoera aldaketetan momentuko agiriak aurkezteko aukera izango da.

c.3) Titular-jabeekin bizi diren seme-alaben eta gurasoen dirusarrerak (aiton-amonak) %75ean kontabilizatuko dira.

c.4) Murrizketak guztira ezin izango du %90a gainditu eta ondorioz, eskatzaile guztiek gutxienez %10 ordaindu beharko dute.

4.2 Helduentzako Ikastaroetan (17 urtetik aurrera):

a) "Gazte Txartela"ren jabe direnek %10eko beherapena izango dute, beti ere matrikula egiterakoan aurkezten badute, eta ezin izango da murrizketa gerora eskatu.

b) Famili Ugariaren kartilaren jabe direnen familiko kideek %25eko murrizketa izango dute matrikulazioan.

c) Langabetuak, ikasleak eta 60 urtetik gorako jubilatuak eta pentsiodunak: %25ekoa.

d) Epigrafe honetan agertzen diren tarifak murrizketa bat izango dute, P.G.S.ren arabera, ondorengo taula jarraituz:

ETXEAN BIZI DIREN PERTSONAK	%30	%20	%10
1 PERTSONA	S.M.I.	S.M.I.+ %10	S.M.I. + %20
2	S.M.I. + %10	S.M.I. + %20	S.M.I. + %30
3	S.M.I. + %20	S.M.I. + %30	S.M.I. + %40
4	S.M.I. + %30	S.M.I. + %40	S.M.I. + %50
5	S.M.I. + %40	S.M.I. + %50	S.M.I. + %60
6	S.M.I. + %50	S.M.I. + %60	S.M.I. + %70

d.1) Atal honetan adierazitako murrizpena lortzeko, interesatuak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

. Murrizpenaren eskaera, egungo egoera ekonomikoak aldaketarik izanez gero, hurrengo urteko PFEZren Aitorpenaren kopia aurkeztuko duela hitz emanez.

. Aurreko urteko PFEZren Aitorpenaren kopia edo aurkeztu ez izanaren agiria.

d.2) Hala ere, egoera aldaketetan momentuko agiriak aurkezteko aukera izango da.

d.3) Titular-jabeekin bizi diren seme-alaben eta gurasoen dirusarrerak (aiton-amonak) %75ean kontabilizatuko dira.

d.4) Murrizketak guztira ezin izango du %90a gainditu eta ondorioz, eskatzaile guztiek gutxienez %10 ordaindu beharko dute.

5.- Tasaren ordainketa, pagamendu bakarrean:

- Hilabeteko froga epea onartzen denean, ikasleek kurtsoa hasi eta hilabetera tasaren ordainketa egingo dute pagamendu bakarra bidez; aipatu hilabetea froga epe bezala kontsideratuko delarik jarraitu nahi duten ala ez erabaki dezaten. Jarraitu nahi ez badute, ez dute matrikula ordaindu beharko.
- Froga epea onartuz gero ihardueran partehartzeko, hilabeteko froga epea pasa ondoren ikasleren batek kurtsoarekin jarraitu nahi ez balu, tasa osoa ordaindu beharko du.
- Froga eperik ezartzen ez den kasuetan berriz, ordainketa pagamendu bakarra bidez egingo da matrikula egiterakoan.

L.- KIROL MAILAKO JARDUERAK

1.- KIROLDEGIKO URTEKO ABONUA

1.- KIROLDEGIKO URTEKO ABONUA/ABONOS ANUALES POLIDEPORTIVO

TALDEA/GRUPO	ADINA/EDAD	URTEKOA/ANUAL	HIRUHILEKOA/ TRIMES	HILABETE/MES
Haurrak/niños	0-15 urte/años	18 €	6 €	3€
Gazteak /Jovenes	16-24 urte/años	30 €	9 €	3,50 €
Helduak/Adultos	25-64 urte/años	60 €	16,5 €	6,50 €
65 urtetik gorakoak, jubilatuak eta pensionistak/Jubilados y pensionistas mayores de 65	≥ 65 urte/años	40 €	11,5 €	4,50 €
Elbarrituak/minusvalidos		30 €	7,5 €	3 €
Langabetuak/En paro		25 €	7 €	3 €

Oharrak:

- 1) Urtero abonua urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra izango da.
- 2) Abonu familiarren tarifa: familiako partaide bakoitzaren kuotaren batuketari % 10eko deskontua egingo zaio.
- 3) Gazte txartela aurkezten duenak % 10eko deskontua izango du urteko zein hiruhileko abonuan.
- 4) Epigrafe honetan agertzen diren tarifak murrizketa bat izango dute, P.G.Sren arabera, ondorengo

ETXEAN BIZI DIREN PERTSONAK	%90	%75	%50
1 PERTSONA	S.M.I.	S.M.I.+ %10	S.M.I. + %20
2	S.M.I. + %10	S.M.I. + %20	S.M.I. + %30

3	S.M.I. + %20	S.M.I. + %30	S.M.I. + %40
4	S.M.I. + %30	S.M.I. + %40	S.M.I. + %50
5	S.M.I. + %40	S.M.I. + %50	S.M.I. + %60
6	S.M.I. + %50	S.M.I. + %60	S.M.I. + %70

4.1) Hirugarren atal honetan adierazitako murrizpena lortzeko, interesatuak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

. Murrizpenaren eskaera, egungo egoera ekonomikoak aldaketarik izanez gero, hurrengo urteko PFEZren Aitorpenaren kopia aurkeztuko duela hitz emanez.

. Aurreko urteko PFEZren Aitorpenaren kopia edo aurkeztu ez izanaren agiria.

4.2) Hala ere, egoera aldaketetan momentuko agiriak aurkezteko aukera izango da.

4.3) Titular-jabeekin bizi diren seme-alaben eta gurasoen dirusarrerak (aiton-amonak) %75ean kontabilizatuko dira.

4.4) Murrizketak guztira ezin izango du %90a gainditu eta ondorioz, eskatzaile guztiek gutxienez %10 ordaindu beharko dute.

5) Hiruhilabeteak hurrengoak izango dira:

1.goa: 2008/01/01 – 2008/03/31.

2.na: 2008/04/01 – 2008/06/30.

3na.: 2008/07/01- 2008/09/30.

(abuztua itxia egonez gero bi hilabeteko proportzioa kobratuko da).

4na.: 2008/10/01 – 2008/12/31.

6) Hilabeteko abonua hilabete naturaleko iraupena edukiko du.

7) Abonatu batek egindako bazkidetza epea amaitu baino lehen baja ematen badu ez zaio kuotaren proportziorik itzuliko, kasu berezietan salbu; kasu hauek dagokion batzordeak aztertuko ditu.

- Aplikazio Oharra: Ezarritako murrizpenak ez dira gehigarriak edo bateragarriak izango eta soilik murrizpen handiena duen aukera aplikatuko zaio.

2.- EGUNEROKO SARRERAK

TALDEA/GRUPO	ADINA/EDAD	EGUNEKO SARRERA/ENTRADA DIARIA
Haurrak/niños	0-15 urte/años	1.50 €
Gazteak/jovenes	16-24 urte/años	2.00 €
Helduak/adultos	25-64 urte/años	2.50 €
65 urtetik gorakoak/mayores de 65	≤ 65 urte/años	2.00 €
Elbarrituak/minusvalidos		1.50 €
Langabetuak/En paro		1.50 €

- Aplikazio Oharra: Urteko abonuetarako aurreikusitako murrizpenak ez dira aplikagarri.

3.- ALOKAIRUAK

	TARIFAK(orduko)/Tarifas (Por hora)		BALDINTZAK
	Haurrak	Besteak	

<p>os</p> <p>Abonatuak/Abonad</p>	<p>Dohainik/Gratis</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Erreserba bakoitza ordubeterako izango da./Cada reserva sera de una hora. • Pertsona edo talde bakoitzak asteko erreserba bakarra egin ahal izango du./Cada persona o grupo podra hacer una reserva por seman. • Gehenez 15 eguneko epearekin egin daiteke erreserba/ Se podra realizar reservas como máximo con 15 dias de antelación. • Lehentasuna talde federatuek eta herritarrek izango dute/ Tendrán preferencia los grupos federados y los vecinos de Anoeta.
-----------------------------------	------------------------	--

- Aplikazio Oharra: Urteko abonuetarako aurreikusitako murrizpenak ez dira aplikagarri.

6. IKASTAROAK

1. DANTZA:

- Astero ordu edo frakzioa..... 48,46 Euro
- Astero ordu eta erdi edo fraktzioa.....70,11 Euro

2. GAINONTZEKO KIROL JARDUERAK

Gainontzeko zerbitzu eta kirol jardueretako partaideen kuotak eta izen emate epeak daogkion batzordeak finaktuko ditu bere momentuan. Beste udalekin batera antolatzen diren jardueretan udalen artean zehaztutako irizpideak aplikatuko dira.

TARIFA HAU APLIKATZEKO ARAUAK:

- 1.- Matrikula egin ahal izateko, aurreko ikastaroen kuoten ordainketak eguneraturik egon behar dute.
- 2.- Matrikulazio epea: Aurreko ikastaroetan matrikulatutako ikasleak nahiz ikasle berriak dagokion batzordeak erabakitako epean matrikulatu ahal izango dira eta Pilota eta Dantza ihardueretarako berriz, ekaina bukaeran, uztailan edo irailean matrikulatu ahal izango dira.
- 3.- Matrikulazioa dela eta aurreko epigrafetan ez bada zer edo zer jaso eta dudarik sortu ezker, Kultura Batzordeak erabakiko du dagokiona.
- 4.- MURRIZKETAK iharduera guztietan eta anoetan erroldaturik daudenei soilik aplikatuko zaie. Murrizpenak

hauek dira:

4.1 Umeentzako Ikastaroetan (16 urte arte)

a) "Gazte Txartela"ren jabe direnek %10eko beherapena izango dute, beti ere matrikula egiterakoan aurkezten badute, eta ezin izango da murrizketa gerora eskatu.

b) Famili Ugariaren kartilaren jabe direnen familiako kideek %25eko murrizketa izango dute matrikulazioan.

c) Epigrafe honetan agertzen diren tarifak murrizketa bat izango dute, P.G.S.ren arabera, ondorengo taula jarraituz:

ETXEAN BIZI DIREN PERTSONAK	% 30	% 20	% 10
1 PERTSONA	S.M.I.	S.M.I.+ %10	S.M.I. + %20
2	S.M.I. + %10	S.M.I. + %20	S.M.I. + %30
3	S.M.I. + %20	S.M.I. + %30	S.M.I. + %40
4	S.M.I. + %30	S.M.I. + %40	S.M.I. + 50%
5	S.M.I. + %40	S.M.I. + %50	S.M.I. + %60
6	S.M.I. + %50	S.M.I. + %60	S.M.I. + %70

c.1) Atal honetan adierazitako murrizpena lortzeko, interesatuak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Murrizpenaren eskaera, egungo egoera ekonomikoak aldaketarik izanez gero, hurrengo urteko PFEZren Aitorpenaren kopia aurkeztuko duela hitz emanez.

- Aurreko urteko PFEZren Aitorpenaren kopia edo aurkeztu ez izanaren agiria.

c.2) Hala ere, egoera aldaketetan momentuko agiriak aurkezteko aukera izango da.

c.3) Titular-jabeekin bizi diren seme-alaben eta gurasoen dirusarrerak (aiton-amonak) %75ean kontabilizatuko dira.

c.4) Murrizketak guztira ezin izango du %90a gainditu eta ondorioz, eskatzaile guztiek gutxienez %10 ordaindu beharko dute.

4.2 Helduentzako Ikastaroetan (17 urtetik aurrera):

a) "Gazte Txartela"ren jabe direnek %10eko beherapena izango dute, beti ere matrikula egiterakoan aurkezten badute, eta ezin izango da murrizketa gerora eskatu.

b) Famili Ugariaren kartilaren jabe direnen familiko kideek %25eko murrizketa izango dute matrikulazioan.

- c) Langabetuak, ikasleak eta 60 urtetik gorako jubilatutak eta pentsiodunak: %25ekoa.
- d) Kiroldetako abonatuak: % 20koa. Anoetan erroldatuta egon ala ez.
- e) Epigrafe honetan agertzen diren tarifak murrizketa bat izango dute, P.G.S.ren arabera, ondorengo taula jarraituz:

ETXEAN BIZI DIREN PERTSONAK	%30	%20	%10
1 PERTSONA	S.M.I.	S.M.I.+ %10	S.M.I. + %20
2	S.M.I. + %10	S.M.I. + %20	S.M.I. + %30
3	S.M.I. + %20	S.M.I. + %30	S.M.I. + %40
4	S.M.I. + %30	S.M.I. + %40	S.M.I. + %50
5	S.M.I. + %40	S.M.I. + %50	S.M.I. + %60
6	S.M.I. + %50	S.M.I. + %60	S.M.I. + %70

e.1) Atal honetan adierazitako murrizpena lortzeko, interesatuak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

. Murrizpenaren eskaera, egungo egoera ekonomikoak aldaketarik izanez gero, hurrengo urteko PFEZren Aitorpenaren kopia aurkeztuko duela hitz emanez.

. Aurreko urteko PFEZren Aitorpenaren kopia edo aurkeztu ez izanaren agiria.

e.2) Hala ere, egoera aldaketetan momentuko agiriak aurkezteko aukera izango da.

e.3) Titular-jabeekin bizi diren seme-alaben eta gurasoen dirusarrerak (aiton-amonak) %75ean kontabilizatuko dira.

e.4) Murrizketak guztira ezin izango du %90a gainditu eta ondorioz, eskatzaile guztiek gutxienez %10 ordaindu beharko dute.

5.- Tasaren ordainketa, pagamendu bakarrean:

- b) Hilabeteko frogaren epea onartzen denean, ikasleek kurtsoa hasi eta hilabetera tasaren ordainketa egingo dute pagamendu bakarria bidez; aipatu hilabetea frogaren epe bezala kontsideratuko delarik jarraitu nahi duten ala ez erabaki dezaten. Jarraitu nahi ez badute, ez dute matrikula ordaindu beharko.
- b) Frogaren epea onartuz gero ihardueran partehartzeko, hilabeteko frogaren epea pasa ondoren ikasleren batek kurtsoarekin jarraitu nahi ez balu, tasa osoa ordaindu beharko du.
- c) Frogaren eperik ezartzen ez den kasuetan berriz, ordainketa pagamendu bakarria bidez egingo da matrikula egiterakoan.

6.- Besteak.

- Hasita dauden ikastaroetan pertsona berriak onartu ahal izango dira oraindik plaza libreak baldin badaude eta dagokion tasaren zati proportzionala ordainduko dute.
- Ikastaroetan arrazoituriko baja ematen baldin bada (lesioak, haurdunaldia ...) klase kopuruarekiko zati proportzionala itzuliko da.

Herri Zerbitzuak emateagatik eta Iharduerak burutzeagatik ordaindu behar diren Tasak arautzeko Ordenantza Fiskala Eranskin honetan agertzen diren tarifak haren zati direlarik, 2007ko abenduaren 31ean behinbetiko izaeraz onartuta geratu zen.

Anoeta, 2007ko abenduaren 31.

O.E Alkatea,-

Idazkari-Kontuhartzailea,-